

Imanol Murua

Euskaldunon Egunkaria, 1991-01-16: 3.

Sortzez andoaindarra naizenez, ezagutzen dut Leizaran bailarako alderdi bat; bestalde, Plazaolako tren ttikian ibilia naiz haurra nintzela Lekunberriraino.

Eta paisaia horren ezagutza baino herrimina geratu zait gehiago.

Autobiaren egitasmoaz entzuten hasi ginaneko nire herriratzetan pozik aipatzen genuen lagunartean Nafarroa eta Gipuzkoa hurbiltzeko parada; orain ere aitutzen dugu, baina Irurtzun-Andoain bitarteko Autobideak bi jarrera sortuak ditu, gure betiko dikotomia hiperkritikoa dela medio; batzuk, Gipuzkoako Diputazioak landu eta erabaki duen trazaketaren alde daude, besteak, berriz, aurka. Zergatiaz galdetzen dudanean, batzuk hain beharrezko den bide berri honek sortuko dituen kalte ekologikoak aipatzen dizkirate; besteak, berriz, eremuan kalte ekologiko handirik sortu gabe laburragoa izango delako agertzen dira bere alde.

Horiek entzunak ditut.

Baina, egia esan, neronek ez dut arazoa ezagutzen. Beraz, ez nator autobideaz hitzegitera.

Kezkatzen nauena, ezagutzen dudalako, giro horretan Gipuzkoako Diputatu Nagusia modu berezian inplikaturik ikustea da.

Gizakiak, denak dira errespetagarri. Pertsona, legez gizarteak oinarritzeko eskubidez inguratzen du. Animaliak, mendiak eta ibaiak berak hainbeste arduratzen gaituzten sozietatean, pertsonak merezi du gutxienez tratu justua. Halere, gure artean kostatzen zaigu honi (gutako bakoitza garen pertsonari, baina batez ere juzkatzen ari garen pertsona hau bestea den agintariari), erantzupen bat exijitzeko orduan merezi duen begirunea aitortzea.

Batez ere politikaren eragina nabaria da.

Honek egiatan itxutzen gaitu.

Oraingo honetan ere Murua jauna gehiago neurtzen dugu Politika ukitzen duen agintaritzaren aldetik eta oposizioan daudenen ikuspegitik eraginda, teknika, ekologia eta estetika aldetik baino. Hauek erabiltzen dira gehienetan arrazoi bezala, baina harritzekoa izango litzateke bi hegaletako bakoitzean alderdikideek ekintza honetan estetika, ekologia edo teknikari dagozkien arrazoiak berdinak izatea.

Zilegi da aginteak, nahiz eta demokratikoa, leiala eta garbia izan, arazoak, eta arazo istilutsuak ere, sortzea. Gizakiaren munduak honela jokatzeko du. Baina eraginen erantzule alderdiak edo taldeak direnez, hauek osatzen dituztenak pertsonenak ere badira, izan behar dute; eta geure arteko gora-behera hauek direla eta ezin ditugu agintari demokratikoak inoiz mehatxupeko giro itxuak behartzen duten kuadroan sartu.

Franco garaian zilegi zen jasan ezin zen agintekeria hark biolentzia sortzea, baina gaurko euskal gizarte barruko egoeran ezin da ekintza bera justifikatu.

Imanol Muruari, gizon eta agintari bezala nire errespeto osoa besterik zor ez diodanari, nahi diot larrialdi honetan pertsona eta kazetari bezala nire lagungoa agertu.